



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 9a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, museo etnologikoaren etorkizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, generoaren eragina aztertzeko txostenak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, egindako galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenez programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralak sanferminetan izandako funtzionamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, lehorteak jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, lehorteak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, udalei euren lurrek izan dezaketzen debaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, gune publikoetan merkataritza bizkortzeko programak gauzatzeko laguntza-programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Bideko Autobian paratu diren kamerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioarentzako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldietan boluntario arituko direnei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Museo Etnografikoaren kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak legionelaren agerpenari aurrea hartzeko egiten duenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak esparru familiarrean euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak esparru sozial eta publikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, museo etnologikoaren etorkizunari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak museo etnologikoaren etorkizunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko uztailaren 18ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako Museo Etnologikoari buruz. Hona Viánako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura eta Turismo Batzordean 2005eko irailaren 13an egin nuen agerraldian Parlamentuari jakinarazi nion bezala, Nafarroako bigarren paradore nazionala Iratxeko monasterioan jartzeko proiektua eta eraikin berean museo etnologikoa jartzea ez dira bateragarriak; hori dela eta, museo etnologikoa non jarriko den zehaztu beharko da.

Kultura eta Turismo Departamentuko Museoen Zerbitzuak eta Ondare Arkitektonikoaren Zerbitzuak lan egin dute beste lekuren bat bilatzeko eta aztertzeko ahaleginetan, hasierako baldintza batekin: museoa Lizarran edo haren inguruetan jartzea, bere garaian Iratxeko Monasterioan jartzeko izan ziren arrazoi berdinengatik.

Aukera guztien artean, Kultura eta Turismo Departamentuko teknikariek Lizarrako San Benito komentu zaharraren alde egin dute; komentu hori, gaur egun, Lizarrako Udalarena da.

Arazoak asko dira; izan ere, batera biltzen dira planteamendu tekniko hutsak eta planteamendu sozialak, turistikoak, kulturalak eta elkar indartzearenak.

Ikuspuntu tekniko batetik, dimentsio egokiak eta barruko espazio garbi eta gardenak dituen eraikina da.

Bildumen ezaugarriei erreparatuta (multzo birsortuak, tamaina handiko piezak, pisu handikoak), areto zabalak izan behar dira, altuera kontrolatukoak eta egituraren gune batzuetan forjatu bereziak dituztenak.

Halaber, ezinbestekoa da eraikinerako sarbideak onak izatea eta sarrera bat baino gehiago izatea (bat jendearentzat eta beste bat zama-lanetarako). San Benito komentuaren kasuan hori guztia posiblea da, zeren eta XVII. mendeko fatxada manierista berreskuratuko bailitzateke. Gainera, barruan kafetegia dagoenez, zerbitzu hori jartzeko gastua saihestuko litzateke. Garrantzi handiko beste elementu bat da inguruan aparkalekuak egotea; behar hori beteko litzateke Gustavo de Maeztu kalearen ondoko aparkalekuarekin. Horri gehitu behar zaio, alderdi positibo gisa, autobusen geltokia ere bertan dagoela. Garrantzitsua da kontuan izatea museoa naturaren eta ondarearen aldetik erakargarritasun berezia duen eremu batean egonen litzatekeela, eremu zabal eta irekiekin; horrek aukera emanen luke dimentsio bereziko pieza etnografikoak bertan jartzeko, eta hori bisitariarentzat berehala deigarri gertatuko litzateke.

Gogoeta tekniko horiei guztiei gehitu behar zaie eraikin historikoak honezkero izaera galdu duela, eta, horrenbestez, eraikin babestua izateari utzi diola. Hori dela eta, behar diren lanak egin daitezke hartan proiektu berezi honen berezko beharrezanetara egokitzeko, museo egokia izan dadin.

Hartara, behin behar diren azterlan teknikoak bukatuta, departamentuak proposamen formalak aurkeztuko dio Lizarrako Udalari. Udalak proposamen hori onartzen badu, Nafarroako Gobernuak abian jarriko luke heldu den urtean Nafarroako museo etnografikoa San Benito komentuan jartzeko prozedura.

Aurreko guztia gorabehera, Kultura eta Turismo Departamentuak oso balorazio positiboa egiten du Beratik eta Tafallatik hartu dituen eskaintzen inguruan etorkizuneko museo horietan jartzeko; hori dela eta, azkenean museo etnologikoa Lizarran edo haren inguruetan jartzea ezinezkoa bada, eskaintza horiek, eta Nafarroako beste udal batzuek aurkezten dituztenak ere, xeheago aztertuko ditugu, betiere arestian azaldutako irizpideei erreparatuta.

Museo etnologikoko piezak lekualdatzeari dagokionez, Kultura eta Turismo Departamentuko teknikariak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko teknikariak elkarrekin lan egiten ari dira

museoko piezak behin-behinekoz biltzeko leku egokia aurkitzeko. Halaber, aurreikusita dago 2006ko aurrekontuetan berriazko kontusail bat ezartzea lekualdatze eta biltze lan horiek ordaintzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 16an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, generoaren eragina aztertzeko txostenak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak egindako galdera, generoaren eragina aztertzeko txostenak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko uztailaren 18ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du generoaren eragina aztertzeko txostenak egiteari buruz (PES-250). Hona erantzuna.

1.- Lehen galdera: Nork prestatzen ditu legean ezartzen diren neurriek gizon eta emakumeen arteko berdintasunean izanen duten eraginari buruzko txostenak?

Sexuaren eraginari buruzko txostenak arautu beharreko gaien eskudunak diren departamentuek egiten dituzte, eta, horien barrenean, kasuan kasuko foru lege proiektua lantzeko eta tramitatze-ko ardura duen unitateak.

2.- Bigarren galdera: Gai horri buruzko zenbat txosten prestatu dira? (Erantsi prestatutakoak).

Idazki honekin batera, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak indarra hartu arte sexuaren eraginari buruz eginiko txostenen fotokopia erantsi dugu, hain zuzen ere Nafarroako Gobernuak onetsitako foru lege proiektuei dagozkienak.

3.- Hirugarren galdera: Nafarroako Emakumearen Institutuak parte hartzen al du generoaren eraginari buruzko txostenen azterketan eta prestaketan?

Nafarroako Gobernuaren eskumena diren xedapen orokorrak lantzeko barneko jarraibideetan, aurreikusita dago sexuaren eraginari buruzko txostena egiteko Nafarroako Emakumearen Institutuaren laguntza eska daitekeela.

Halaber, txosten hori egiteko beharra ezarri zenetik, hartu-emanak izan dira Nafarroako Emakumearen Institutuarekin, txosten horiek egiteko behar den prestakuntza teknikoa emateko haren laguntza zein izanen den finkatzeko.

Foru lege proiektuaren tramitazioaz arduratzen den unitateak eskatuta egiten diren txosten horiek landu eta prestatzerakoan institutu horrek duen esku-hartzea alde batera utzita, erakunde autonomo horren estatutuek emakumeengan eragina duten foru lege proiektu eta legegintzako proposamenei buruz txostena egiteko eginkizuna esleitzen diote; izan ere, egokitzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal dizkiete kasuko proiektuei, zeren eta proiektu horiek, lantzeko prozesuan daudene-

an, departamentu guztiei igortzen baitzaizkie xede horrekin.

4.- Laugarren galdera: Hala baldin bada, zer ekarpen edo zertan datza bere ekarpena edo lana?

Galdera hau aurreko puntuan erantzun dugu.

Iruñean, 2005eko irailaren 16an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, egindako galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, obra-hondakindegia sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du obra-hondakindegia sortzeari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Asociación Navarra de Empresas de Construcción y Obras Públicas (ANECOP) elkarteak, Recuperación Ambiental, S.L. (REAM) enpresaren bitartez, Iruñerrian material inerteak isurtzeko eremuak ezartzeko proiektua sustatu zuen; proiektu hori udalez gaindiko eragina zuela deklaratu zen Nafarroako Gobernuaren 2000ko azaroaren 6ko erabakiaz. Proiektuan 11 kokaleku proposatzen ziren, guztira 24.037.698 m³-ko bolumena biltzen zutenak; bolumen horrekin, 20 urte baino gehiagotarako bilketa bermatuta zegoela jo zen.

Nafarroako Gobernuaren 2001eko uztailaren 2ko erabakiaz, behin betiko onarpena eman zitzaion proiektu sektorialari, eta sei kokaleku baimendu ziren. Proiektua onura publikokotzat eta gizarte interesekotzat jo zen desjabetze ondorioetarako, eta sustatzailea deklaratu zen desjabetzearen onuradun; hori dela eta, sustatzaileari dagokio desjabetzea premiatzea behar denean, bai eta kokaleku bakoitzeko proiektua aurkeztea ere, egokia jotzen duenean, hirigintzaren eta ingurumen arloko baimenak lortzeko.

Espartza-Galarko proiektua Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiaren 2005eko irailaren 9ko 1780 Ebazpenaz baimendu zen. Eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren irailaren 15eko 523/2005 Foru Aginduz hasiera eman zitzaion desjabetze prozesuari, jendaurrean jarriz proiektuak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda. Desjabetze prozedura horren bukaera, neurri handi batean, sustatzaileak jabeekin adiskidetasunezko akordioak lortzearen baitan egonen da, Ardanatzen gertatu zen bezala.

Proiektu sektorialean aurreikusitako gainerako kokalekuak, sustatzaileak eskatuta baimenduko dira; eskabidea egokia jotzen duen unean aurkeztu ahal du.

Iruñean, 2005eko irailaren 20an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, tresna elektriko eta elektronikoei eta hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo andreak galdera egin du tresna elektriko eta elektronikoei eta haien hondakinen kudeaketari buruzko 208/2005 Errege Dekretuak indarra hartzearen inguruko zenbait gairi buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Departamentuak ba al du asmorik arlo horretako foru araudia egokitzeko edo garatzeko? Hala baldin bada, zer epetan?

Ez dugu aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei (AEEH) buruzko foru arau bat garatzeko asmorik. Berriz erabiltzearen, birziklatzearen eta balioztatzearen helburuak zehatz definiturik daude tresna elektriko eta elektronikoei eta haien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan; helburu horiek lortzeko erantzukizuna ekoizleena da, eta erantzukizun horiek exijitzeko prozedura arautu batzuk badaude.

2. Zer neurri hartu edo hartuko ditu araudia betetzen dela bermatzeko eta kontrolatzeko?

Lehenbizi, kudeaketarako sistema integratuei (KSI) baimena eman nahi zaie, halako baldintzetan non modua egonen baita haien jarduketa eta 208/2005 Errege Dekretuan ezarritako birziklatze ehunekoak lortzen direla kontrolatzeko. Hori dela eta, etengabeko komunikazioa daukagu beste autonomia erkidego batzuekin, haietan ezarritako

exijentzia berak ezartzeko. Halaber, kudeaketarako sistema integratuen (KSI) eta toki entitateen arteko akordioak sustatuko dira aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen tratamendua finantzatzeko.

3. Zer urrats eta/edo itun egin ditu ekoizleekin?

Urtebete baino gehiago da Nafarroako ekoizleei informazioa eman zaiela errege dekretu berriaren aplikazioaren ondorioz dauzkaten betebeharreri buruz; aipatu errege dekretuak 2002/96/CE eta 2003/108/CE zuzentarauen transposizioa egiten du.

4. Ba al da departamentuak baimendutako kudeaketa sistema integraturik?

Orain dela gutxi 8 kudeaketarako sistema integratuk aurkeztu dute eskabidea, eta haietarako baimena lantzen ari da. Haien artean "koordinazio ganbera" bat ezartzeko aukera baloratzen ari da, hain zuzen biltzen dituzten aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen (AEEH) kontrola eta kudeaketa errazteko. Aurreikusita dagoena da baimenek 2006ko hasierarako indarra hartzea, zeren eta kudeaketarako sistema integratuetan jasotako dokumentazioa oso eskasa baita. Egoera hori bera dago Espainiako gainerako autonomia erkidegoetan.

5. Zer urrats egin ditu araudiak ukitutako udalari eta mankomunitateekin? Parte hartu al du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak?

Egin nahi duguna da haiei arauen ondorioei buruzko informazioa ematea. Dauzkaten betebeharreri eta eskubideak. Horri dagokionez, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroarekin batera, koordinazio jardunaldi bat antolatu dugu, hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateei haien eskubide eta betebeharreri buruzko informazioa emateko.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ez du parte hartu.

6. Sustatu al ditu ingurumenaren kudeaketarako berezko sistema ziurtatuak edota toki entitateekin lankidetzan? Zein dira?

Ez da inongo ekintzarik sustatu aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeatzaileek ingurumen kudeaketako ziurtagiriak izan ditzaten.

7. Baldintzak ezarri al ditu hondakin horiek udal-errietan aldi baterako biltegitratzeko?

Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak aldi baterako biltegitratzeko baldintzak zehazki definiturik daude errege dekretuan. Ez dugu beharrezkotzat jo beste batzuk arautzea.

8. Ba al du ekoizleen erregistrorik? Hala baldin bada, erantzunarekin batera igortzea nahiko nuke.

Bai. Ondokoak daude inskribaturik: BSH Electrodomésticos eta Jofemar.

9. Ezarri al ditu Errege Dekretuak ukitutako Nafarroako produktuak biltzeari, balioztatzeari, berriz erabiltzeari eta birziklatzeari buruzko helburuak?

Berriz erabiltzeko, birziklatzeko eta balioztatzeko helburuak estatuko legerian ezarritako berak dira.

10. Zer informazio sistema aurreikusi da herri-tarrek, toki entitateek, ekoizleek, banatzaileek eta jendeak, oro har, gai horri buruz izan ditzaketen zalantzei erantzuteko?

Etxeko aparatu elektriko eta elektronikoen gaitako bilketaren erantzukizuna toki entitateena da; haiek antolatu behar dituzte herritarrentzako bilketa sistemak. Ekoizleek eta banatzaileek, beren aldetik, beren burua antolatu eta 208/2005 Errege Dekretua betetzeko modua hitzartu behar dute. Departamentu honek telefono bidezkoa edo bisiten bitartez ematen die informazioa interesdunei; horixe da arau honetarako eta aipaturiko beste arauetarako informazioa emateko ohiko prozedura.

Aurrekoa gorabehera, 2003ko azaroaren 10ean, bilera batera deitu zitzairen hiri hondakinak kudeatzen dituzten hiru mankomunitate nagusiei, aparatu elektriko eta elektronikoen ekoizleen elkarteei, saltoki handietako eta banaketa kateetako arduradunei eta Emausko Traperoei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarri-laren 27ko 2002/96/CE zuzentarauaren transposizioa eginen zuen errege dekretuak indarra hartze-arekin beren gain hartu behar zituzten betebeharrak azaltzeko.

11. Departamentuak aztertu al ditu birziklatzearen kostua eta toki entitateentzako finantza sistema?

Gure ustez, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 20.3 artikulua ezartzen ditu betebeharrak; honakoak hain zuzen: "5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek nahitaez hiri hondakinaren bilketa selektiborako sistemak ezarri beharko dituzte, hondakinak birziklatzeko edo bestelako balioztatze modu batzuk bideratze-ko. Horixe da mankomunitateak behartzen dituen beren ekipamenduak eta, agian, beren kudeaketa kostuak areagotzera. Horri dagokionez, 1999ko Nafarroako hondakinaren kudeaketarako plan integralak aurreikusten zuen 32 garbi gune edo eremu itxi ezartzea hondakin horiek modu berezitan emateko. Instalazio horiek irisgarritasuna, erabilgarritasuna eta populazioaren dentsitatea aintzat hartzen zituzten irizpideen arabera banatuta zeuden, hartara zehazki betez 208/2005 Errege Dekretuaren arabera toki entitateek dauzkaten betebeharrak; hala eta guztiz ere, Iruñerriko eta Jurramendiko mankomunitateek baino ez dute zerbitzu hori, eta gainerako mankomunitateek bolumen handiko mankomunitateak "etxez etxe" biltzen dituzte, hartara aparatu elektriko handi guztiak biltuz.

208/2005 Errege Dekretuak ezartzen dituen betebeharrak ez diete toki entitateei ekartzen kostua handitzea; izan ere, guztiz kontrakoa gertatzen da, kudeaketarako sistema integratuek finantzatu behar dituztelako toki entitateek biltzen dituzten aparatu elektriko eta elektronikoen hondakin guztien garraioa eta tratamendua, orain arte ez bezala, toki entitateek finantzatu behar izaten baitzituzten gastu horiek. Ahal den guztia eginen da errege dekretuaren betetze zehatzak behar diren onura guztiak ekar ditzan toki entitateen hondakinaren kudeaketarako zerbitzuen finantziatorako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 22an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak “Reyno de Navarra” irudiaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du “Nafarroako erresuma” turismo-markaren publizitatea egiten duten kirol taldeei dirulaguntzak emateari buruz. Hona hemen Toki Administrazioaren kontseilariak Nafarroako Gobernuaren eledun den aldetik emandako erantzuna.

Galderan baieztatzen denaren kontra, Nafarroako Gobernuak ez dio dirulaguntzarik eman inongo kirol talderi “Nafarroako erresuma. Lurralde oparoa” turismo-markaren publizitatea egiteko.

Komunikabideetan eginiko bi agerralditan azaldu denez, Nafarroako Gobernuak publizitateko bi kontratu sinatu ditu Club Multideportes Peralta eta Xota Fútbol Sala kirol klubekin.

Aipatu kontratuak sinatu aurretik eginiko txostenetan, agertzeraz ematen da Nafarroako irudia foru erkidegotik kanpo zabaltzea Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak dauzkan eginkizunetatik garrantzitsuenetako bat dela, eta, horretarako, lankidetzan estuan ari dela Turismo Zuzendaritza Nagusiarekin “Nafarroako erresuma. Lurralde oparoa” turismo-marka sustatzeko.

Halaber, gehitu beharra dago kirol honek komunikabideetan, eta bereziki telebistan, daukan garrantzi gero eta handiagoa ikusita, egokitzat jo dela Nafarroako klub garrantzitsuenetako jantziez eta instalazioez baliatzea aipatu logotipoaren oinarri gisa.

Kategoria nazionalako Nafarroako kirol taldeek hedabideetan izan dezaketan eragina aztertuta,

Komunikazio Zerbitzuko teknikariek gomendatu zuten aprobetxatzea Club Multideportes Peralta eta MRA Gutarra taldeek Futboleko Bigarren B dibisioan eta areto-futboleko Ohorezko Dibisioan, hurrenez hurren, duten parte-hartzea, Nafarroaren irudi turistikoa Espainia guztian zabaltzeko.

Club Multideportes Peralta taldearekin sinaturiko kontratuak ezartzen du entitate horrek 36.000 euro, BEZa barne, jasoko dituela futboleko lehen taldean “Nafarroako erresuma. Lurralde oparoa” turismo-marka kamisetetan eta futbol zelaiko bi hesi finkotan erakustegatik.

Areto-futboleko Xota kirol klubari dagokionez, kontratuak 69.600 euro, BEZa barne, aurreikusten ditu, “Nafarroako erresuma. Lurralde oparoa” turismo-marka kirol jantzietako kamisetetan eta galtzetan eta kirol pabilioiko bi hesi finkotan erakustegatik. Bestalde, talde horrek konpromisoa hartzen zuen “Nafarroa” terminoa bere izen ofizialean jasotzeko.

Bi kasuetan, konpromisoak eragina du ligako eta errege kopako txapelketen partidetan, horietan ariko baitira bi taldeak denboraldi honetan.

Nafarroako Gobernuko Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak etengabe aztertzen ditu Nafarroako irudi turistikoa foru erkidegotik kanpo sustatzeko dauzkan aukerak, kirol ekitaldietan nahiz bestelakoetan.

Bide beretik, berriki akordio bat itxi da Club Atlético Osasunarekin. Haren indarrez, talde horrek konpromisoa hartzen zuen “Nafarroako erresuma-Lurralde oparoa” marka sustatzeko Frantziako Rennes taldearen aurka jokatu behar zuen UEFA Kopako kanporaketan. Publizitate ordain gisa, marka hori jokalariek bi partidetan erabili behar zituzten kamiseten bularraldean agertuko zen, bai eta Sadar futbol zelaiko telebistako “bigarren U”-ko 34 hesi finkotan eta lau minutuz “speed time” izenekoan –publizitate dinamikoan–, bai eta futbol zelaiko erdiko biribila aprobetxatzea ere bueltako partidako atarikoetan eta atsedenealdian.

Honako ekitaldietako ezaugarriak ikusita, askotan alde aurretik ezin igarri daitezkeen kirol emaitzek markaturik egoten baitira, ezinezkoa da aurrekontu bat aurreratzea. Edonola ere, honako sustapen lanetarako erabiltzen diren kontusailak bere garaian Nafarroako Parlamentuak “Publizita-

tea” eta “Nafarroako irudiaren zabalkundea” xedetarako onetsi zituenak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailean

Nafarroako Gobernuko kontseilari eleduna:

Alberto Catalán Higuera

Galdera, Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenez programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Etxarri Aranazko emakumeari laguntzeko zentroan dagoen itxaron zerrendari, irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza ikastaroei eta Gozamenez programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Osasun kontseilariaren erantzuna

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Etxarri-Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

– Irailaren 13an, 544 emakume daude ginekologia-prebentzioa kontsultarako (ginekologia ez-patologikoa). Gogoratu beharra dago ginekologia-prebentzioko errebisioa hiru urtez behin egitea gomendatzen dela.

– Osasun eta sexu heziketaz arduratzen diren pertsonen artean, esleituta dauzkaten jardueretarako euskara nahikoa dakiten profesionalak daude.

– Gozamenez programa egungo egoerara egokitu da; aurreikusita dago honelako jarduerak egitea: laburmetriak, ipuinak kontatzeko unitate didaktikoak eta abar.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du Leitzako ikastetxe publikoko irakasleentzako eta Altsasuko udal haurtzaindegiko hezitzaileentzako prestakuntza eskaerari emandako erantzunari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Leitzako ikastetxe publikoko bederatzi irakasle hartu dute parte 2004-2005 ikasturterako irakasleentzako prestakuntza planean; honako jardueretan, hain zuzen:

– Baliabide informatikoak erlijioa irakasteko (euskaraz). Irakasle batek hartu du parte.

– Drama techniques in the english language classroom (ingeleseaz). Irakasle batek hartu du parte.

– Ingelesaren irakaskuntza haur eta lehen hezkuntzan (ingeleseaz). Irakasle batek hartu du parte.

– Malted: Multimedia authoring for language tutor and educational development (ingeleseaz eta gaztelaniaz). Irakasle batek hartu du parte.

– Ikasteko zailtasunen korrelatu sozial eta emozionalak (gaztelaniaz emandako tailerra). Irakasle batek hartu du parte.

– Orientazio programen diseinua (gaztelaniaz emandako mintegia). Irakasle batek hartu du parte.

– Abies 2.0-1. saioa (maila aurreratua) (gaztelaniaz emandako informazio saioa). Irakasle batek hartu du parte.

– Ikastetxeko prestakuntza arduradunaren kreditatzea. Irakasle batek hartu du parte.

– Iruñeko ILZren Prestakuntza Kontseiluaren kreditatzea. Irakasle batek hartu du parte.

Hamabost irakaslek mintegi bat eratu dute ikastetxean bertan; lan hizkuntza euskara izanen da. "Irakurriaren ulermena lantzeko estrategiak"

Gainera, hemezortzi irakaslek Hezkuntza Departamentuaren on line prestakuntza ikastaroak egin dituzte, ondoko gaiei buruz, hain zuzen: Power Pointen sarrera; MS-Worden sarrera; teknologia berriak haur hezkuntzari aplikatuak; gatazkei irtenbidea emateko teknikak; interneteko sarrera; Open Oficce: testu prozesadorea, Access-97ko sarrera; Open Oficce: kalkulu orria eta ingelesaren irakaskuntzari aplikaturiko teknologia berriak.

2005/06 ikasturte berrirako, lantaldeak osatze-ko hiru eskari daude. Haiek abian jartzeko, ikastetxeak esleituta duen aholkulariak bisitaldia eginen du hemendik gutxira. Hauek dira proposaturiko gaiak: Atlante Proiektuaren aplikazioa (Nafarroako ikasleen hizkuntza eta matematika gaitasunen garapenari buruzkoa), bizikidetasunaren kudeaketa eta ebaluazioa.

Altsasuko udal haurtzaindegiko hezitzaileei dagokienez, Hezkuntza Departamentuak ez du prestakuntza ikastaroak egiteko inongo eskaririk jaso.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 23an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedienteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du gobernuz kanpoko zenbait erakunderi 1996az geroztik funtsak itzultzeko irekitako espedienteei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Egindako galderei erantzun baino lehen, esan beharra daukat, Parlamentuko Gizarte Ongizate Batzordean aurtengo irailaren 1ean egin nuen agerraldian adierazi nuen bezala, zure idazkian

aipatzen den elkarrizketako galderei erantzuteko garaian ez nuen inoiz "irregulartasunak" hitza aipatu; bakarrik aipatu nuen, aurrekariari buruz ari nintzela, 1996tik kontrolak egin dituela departamentu honetako Garapenerako Nazioarteko Lan-kidetzaren Zerbitzuak, eta kontrol horien ondorioz 42 espediente ireki zaizkiela beste hainbeste GGKEri funtsak itzultzeko. Adibide moduan, horietako batzuk aipatu nituen. Halaber, agerraldian adierazi nuen espediente horietarako arrazoi ugari zeudela, eta GGKE-en koordinadorearekin izandako bileran, elkarrizketa horretan esandakoa argitu niela.

Horrenbestez, galderei dagokienez, honakoa esan behar dut:

1. 1996. urtetik irekitako funtsak itzultzeko 42 espedienteetatik, zenbat eta zein amaitu dira zehapen espediente batekin?

Orain arte esandakotik ondoriozta daiteke bat ere ez dela amaitu zehapen espediente batekin.

2. 1996. urtetik irekitako funtsak itzultzeko 42 espedienteetatik, zenbat eta zeintzuk amaitu dira proposamenik edo zehapen espedienterik gabe?

Hasitako 42 espedienteetatik, 39 itzultzeko betekizunarekin bukatu ziren, eta itzulketa egin zen.

Horietako batean zehapen bat jartzea proposatu zen, baina, espediente trazitatu ondoren, ez zen diru-zehapenik ezarri, ez eta ordura arte ordaindutako funtsak itzultzeko exijitu ere. Betiere, ez zen ordaindu dirulaguntzatik oraindik ere ordaintzeko zegoen zatia. Beste espediente batean, itzultzeko prozedura abiatu zen, baina ez zen bukatu entitate desagertua zelako. Gaur egun, itzulketa exijitzeko akzioa preskribiturik dago. Azkenik, espediente baten balorazioa falta da; une honetara arte, ez da inongo irregularitasunik antzeman.

3. Zehapen espediente horietatik zenbat eta zein ireki dira arau-hauste larri edo oso larriengatik? Zein izan dira zehapenak kasu horietan?

Jada adierazi dudana bezala, ez zaio zehapenik ezarri inongo GGKEri, eta zehapena ezarriz bukatu zen espediente bakarra huts-egite arin baten ondorioz irekia zen.

4. Zehapen espediente horietatik zenbat eta zein izan dira GKEaren desgaitzea ekarri dutenak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen deialdieta-ara aurkeztu ahal izateko?

Bide beretik, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate Batzordean irailaren 1ean egin nuen agerraldian ere adierazi nuen une honetara arte ez dela GGKE bakar bat ere inhabilitatu dirulaguntzen deialdi publikoetan parte hartzeko.

5. Zehapen espediente horietatik zenbatetan eta zeinetan antzeman dira GKE-ek eginiko delituen zantzuak eta, horren ondorioz, fiskaltzari igorri zaizkio? Zeintzuk ekarri dute administrazioak salaketa jartzea? Kasu horietan zein izan dira antzemandako balizko delituak?

Agerraldi berean adierazi nuen 42 espediente horietatik bakarra ere ez zitzaiola igorri Ministerio Fiskalari, eta espediente bakarrak ere ez zuela eragin zigor arloko jurisdikzioan salaketa jartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralek sanferminetan izandako funtzionamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralek sanferminetan izandako funtzionamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko zerbitzu zentralek Sanferminetan izandako funtzionamenduari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Sanferminetan, Nafarroako Ospitaleko laborategien antolamendua, ospitaleko gainerako zerbitzu klinikoetako bezala, ondokoa izan zen:

- Uztailaren 6an, laborategietan 12ak arte lan egin zen lanaldi arrunt gisa.

- 7an, 8an, 9an eta 10ean laborategiak itxirik egon ziren; larrialdietako laborategiak lan egiten jarraitu zuen.

- Sanferminetako gainerako egunak lanaldi arruntekoak izan ziren, eta, horrenbestez, ospitaleko laborategiak irekita eta bete-bete lanean aritu ziren.

- Nafarroako Ospitaleko larrialdietako laborategia irekita egoten da urteko egun guztietan 24 orduz. Horretarako, egitura fisiko berariazkoa eta behar diren giza baliabideak dauzka (guardiako fakultatiboak, teknikariak eta abar); bertara igortzen dira presakoak edo lehentasunezkoak diren analisi kliniko guztiak, larrialdietako zerbitzukoak izan nahiz ospitaleratze unitateetakoak izan.

Horrenbestez, esan dezakegu ez soilik Sanferminetan, urteko egun guztietan ere, laborategiek lan egiten dutela Nafarroako Ospitalean, lanaldi arruntean eta laguntza jarraituko ordutegian ere; eskatzen diren analisiak eginen direla bermatzen da horrela, eskariak jarduera programatutik nahiz larrialdietatik heldu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruzko legeria indarduna betetzen dela ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du adingabeei tabakoa saltzeko debekuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Zure idazkian aipatzen duzun egunkari-erreportajea Iruñean egin zen guztiz. Iruñean, Tuteran gertatzen den bezala, udalak bere gain hartuak ditu osasun arlo osoko kontrol eta ikuskapen eskumenak.

Egindako jarduketeki, ikuskapenei eta espediente kopuruari dagokienez, Nafarroan tabakoa saltzeko 1389 establezimendu dauzkagu erregistraturik. Horietatik 232 tabako-dendak dira.

6/2003 Legeak indarra hartu zuenetik, Nafarroako Osasun Publikoaren Institututik gutunen bidalketa orokor bat egin zen: tabako-denda guztietara eta tabakoa saltzen zen leku gehienetara igorri ziren gutunak. Haien bidez, legetik zegokiena gogoratu zitzairen eta, aldi berean, 18 urtez beherakoei tabakoa saltzeko berariazko debekua seinatzeko materiala igorri zitzairen. Oroitarazi zitzairen nahitaezkoa zela seinaleak jartzea, bai eta ez-betetze kasuetarako aurreikusten ziren zehapenak zein ziren ere.

Nafarroan, hiru pertsona daude guztiz aritzen direnak tabakismoarekin loturiko informazio, ikuskapen eta kontrol lanetan. Osasun Publikoaren Institutuko Osasuna Sustatzeko Ataleko lau teknika-keren laguntza dute. Giza baliabide horietaz gainera, Iruñeko Udalak, Tuterako Udalak, Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta beste udal batzuek jartzen dituztenak daude.

6/2003 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, 110 ikuskapen-akta egin dira. Horietatik zortzik lotura dute adingabeei tabakoa saltzearekin, eta zehapen espediente batekin bukatu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Castejóngo zentral termikoak osasunean nahiz ingurumenean dituen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera batzuk egin ditu Castejóngo zentral termikoak ingurumenean eta nafarren osasunean duen eraginari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Zer txosten ditu Nafarroako Gobernuak Castejóngo zentral termikoak ingurumenean eta nafarren osasunean duen eraginari buruz?

Castejóngo ziklo konbinatuko zentral termikoen titularrak FENSA eta ELEREBRO SA dira. Haiek ezarri aurretik, ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko prozedura gauzatu zen; Ingurumen Ministerioak aldeko deklarazioa eman zuen. Kasuan kasuko ingurumen eraginaren deklarazioetan, titularrek bermatu beharreko ingurumen zaintzako baldintzak ezarri ziren.

Une honetara arte, departamentu honek baldintza horien betetzeari buruz dauzkan datuak onak dira; izan ere, ezarritako muga-baloreak betetzen ari dira.

Informazio hori kontrastatu da departamentuak ELEREBRO SAn 2004-05-01ean eta 2005-02-14an eta FENSAn 2004-10-21ean eta 2005-02-11n eginiko ikuskapenetan; izan ere, bi instalazio horiek urteko ikuskapenen planean daude. Bietan funtzionamenduko alderdi txiki batzuk zuzentzeko eskatu zen.

Azpitarratu beharra dago, emisio eta inmisio atmosferikoen jarraipena egiteko, bi zentralen tximinien emisioei buruzko datuak eta zentralen inguruan airearen kalitatea kontrolatzeko sareko

estazioetako inmisioei buruzko datuak departamentuaren airearen kalitatea kontrolatzeko sare automatikoko kontrol zentroan jasotzen direla eguneroko, eta azken horiek Nafarroako Gobernuaren interneteko atariko kalitateari buruzko webean bil-tzen direla.

Zergatik ez da bete abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretua?

Abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretuaren betetzeari buruz, bi alderdiri erreparatu behar zaie:

– Lehenbizi, informazioa ematen ari den modua.

– Bigarrenik, informazioaren edukia.

Moduari dagokionez, departamentuak hertsiki betetzen du 6. artikuluko 4. idatz-zatiko b) letran esaten dena; izan ere, bertan adierazten da informazioa bide egokietatik banatuko dela; esate baterako, kasuen arabera, honakoak erabiliz: ikusentzunezko bitartekoak, egunkariak edo argitalpenak, informazio-pantailak edo sareko zerbitzu informatikoak, internet kasu”.

Berehalakotasun arrazoiengatik, eta artikuluko bereko a) letrako 3. idatz-zatian esaten dena betetzeko, informazioa “gutxienez ere egunean behin gaurkotzeari dagokionez, departamentuak erabaki du informazioa interneten bidez banatzea; izan ere, hartara interesekotzat jotzen duten hedabideek eskuratu ahal izanen dute, eta udalek ere erabili ahal izanen dute; esate baterako, Castejóngo Udalak informazio-pantailak erabiltzen ditu datu horiek ezagutzera emateko. Gure ustez, bada, informazioa zabaltzeko moduari dagokionez, abenduaren 26ko 1796 Errege Dekretuak ezarritakoa betetzen dugu.

Informazioaren edukiei dagokienez, zalantzarik gabe Nafarroako Gobernuaren web orriak gainditze unek jaso zituen, informazioaren atalaseari dagozkionak, uztailearen 13an, 14an eta 16an; horretatik sortu zen, hain zuzen ere, galderan aipatzen den informazioa.

Hortik aurrera, sistema informatikoan ozono alerta bat dagoenean, webaren pantailan gomen-dio batzuk agertzen dira; haietan, ukituriko populazioak eta hartu beharreko arreta-neurriak aipatzen dira; funtsean, 1995/1949 Errege Dekretuko

4. eranskinean agertzen direnak dira, bertan ezarri baitziren ozono kutsagarriko arreta-atalaseak.

Erants daiteke, ukituriko populazioari eta gomendioei dagokienez, gomendioak bat datozela Osasun Departamentuak uztailaren 13an eta 16an behin eta berriz bero bolada zela-eta eman zituenekin –erraz egiazta daiteke hori–, eta, horrenbestez, gure departamentutik, internet bitartez, eta Osasun Departamentutik ere zabaldu zirela hedabideen bitartez.

Laburbilduz, gure ustez, bai informazioa emateko moduan bai haren edukian, bete egin dira 1796/2003 Errege Dekretutik ondorioztatzen diren betebeharrak.

Zer neurri hartu dira arazo hori konpontzeko?

Gure ustez abenduaren 26ko 1796/2003 Errege Dekretua betetzen ari denez, ez da egokia konpontze neurriak hartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 16an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Osasun kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Castejóngo zentral terminoak ingurumenean eta nafarren osasunean duen eraginari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariaren erantzuna.

Aipatu eskualdeko eta Tuterako Reina Sofia Ospitaleko oinarrizko osasun laguntzako patologia erregistroak kontsultaturik, ez da laguntza eman beharrik antzeman zentral termikoen inmisioekin lotura izan dezaketen arnas arazoengatik edo mukosa arazoengatik.

Zentral termikoak lanean hasi zirenetik, aurreko garaiekin alderatuta, ez dira arnas gaitzak ugaldtu. Eskualdeko birika-gaixotasun kronikoen tasa Nafarroako gainerako eskualdeetakoaren antzekoa da, eta funtsean tabakoaren eraginez sortua da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 26an.

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du langileen zerrendan funtzionarioen gradua ez argitaratu izanari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Aldez aurretik, zenbait gogoeta egin behar dugu arlo honen arau-esparrua argitzeko eta hura administrazio honek jarraitutako praktikari nola egokitzen zaion ezagutzeko.

Parlamentu-galdera egiteko erabili diren terminoen iradokitzen dute Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko testu bategineko 20. artikuluan ezarritakoaren bi arauhauste egin direla: lehena, langileen zerrendaren onespina eta argitalpena legean ezarritakoaz beste data batean egin zirelako, eta bigarrena zerrenda osatzen duten funtzionarioen graduari buruzko informazioa falta delako.

a) Lehenbizikoari dagokionez, bereizi behar dira, batetik, plantilla organikoaren onespina eta, bestetik, hura eta langileen zerrenda argitaratzea; kontzeptu horiek ezin dira parekatu eta, gainera, bi xedapen ezberdinetan araututa daude, galderan, batzuetan, horiek bereizten ez badira ere.

Plantilla organikoaren onespina langileen estatutuko testu bategineko 19. artikuluan jasota dago, eta, halakoa denez, eratze ekintza bat da (eta batzuetan, arau izaerakoa, jurisprudentziak esan izan duen bezala), zeinaren bidez determinatzen baitira kasuko administrazioa osatzen duten lanpostuak, legeak berak zehazten dituen inguruabarrekin. Horri buruz, eta foru erkidegoko administrazioaren kasurako, plantilla organikoaren

onespina langileen estatutua onetsi eta gero egiten da, eta une horretatik hartan aldaketa batzuk egiten dira lanpostuak sortzeko edo amortizatzeke edo lanpostuei ordainsari osagarriak emateko kasuko foru dekretuen bitartez.

Aitzitik, langileen estatutuko 20. artikulua aipatzen duen argitaratzeak ez dakar berekin plantilla organikoaren hasierako onespina edo haren aldaketa; egun jakin batean (kasuan kasuko urteko abenduaren 31n) dagoen plantillaren egoeraren zabalkunde hutsezko ekintza da. Hertsiki, aipatu 20. artikulua soilik ezartzen du langileen zerrenda argitaratu behar dela; halere, hasieratik jarraitu den praktika (aurrerago adieraziko dugunaren arabera) izan da kasuko urteko abenduaren 31n argitaratzea langileen zerrenda ez ezik, plantilla organikoa bera ere; horrek, legearen aurkakoa ez izateaz gainera, gardentasun handiagoa dakarkio arlo honi.

Bide horretan, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako organo batzuetako langileria arloko eskurantzak zehazten dituenak, ederki islatzen du bereizketa hori, eta organo ezberdinei esleitzen dizkie jarduketak baterako eta beste jarduketarako eskumena. Nafarroako Gobernuari honakoetarako eskumena aitortzen dio: "Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak proposaturik, Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoko lanpostuak sortu eta amortizatzea eta lanpostuen lansari osagarriak banatu eta aldatzea"; Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria, berriz, honakoak agintzeko eskumena izanen du: "Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoa eta haren zerbitzuko langileen zerrenda, urteroko abenduaren 31 artekoa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea".

Eta izaera aniztasun hori bera azpimarratzen du uztailaren 27ko 100/2005 Foru Dekretuak, egindako galderaren arrazoia dena, bereizita arautzen baititu, batetik, plantilla organikoaren eta langileen zerrendaren argitalpena (2. artikulua) eta, bestetik, plantilla organikoaren aldaketak (3. artikulua, zeinak, bere aldetik, tramite ezberdinak aurreikusten baititu, aipatu 30/2005 Foru Dekretu-

arekin bat etorri, jarduketa motaren eta organo eskudunaren arabera).

Bide horretan, foru erkidegoko administrazioaren jardunak goitik behera errespetatu ditu arloari buruz dauden lege-aurreikuspenak. 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldarrikatu zenetik abiatzen den epeari erreparatuz, esan beharra dago 2004. urtera arte plantilla organikoaren eta langileen zerrendaren argitalpena foru dekretuen bitartez egin dela. Hona foru dekretu horiek: ekainaren 21eko 196/1993 F.D. (1993-07-12ko 85. NAO), maiatzaren 23ko 104/1994 F.D. (1994-06-17ko 72. NAO), otsailaren 13ko 32/1995 F.D. (1995-03-08ko 30 NAO), apirilaren 1eko 166/1996 F.D. (1996-04-24ko 50 NAO), ekainaren 16ko 157/1997 F.D. (1997-06-30eko 78. NAO), ekainaren 3ko 48/1998 F.D. (1998-06-03ko 66. NAO), maiatzaren 19ko 77/1999 F.D. (1999-05-19ko 63. NAO), martxoaren 6ko 103/2000 F.D. (2000-04-24ko 50. NAO), uztailaren 30ko 202/2001 F.D. (2001-08-24ko 103. NAO), apirilaren 15eko 73/2002 F.D. (2002-06-21eko 75. NAO), apirilaren 14ko 79/2003 F.D. (2003-06-13ko 74. NAO) eta ekainaren 28ko 243/2004 F.D. (2004-08-02ko 92. NAO). 2005ean, aipatu 30/2005 Foru Dekretua aplikatuz, argitalpena Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren martxoaren 23ko 33/2005 Foru Aginduaren bidez egin zen (2005-05-13ko 57. NAO).

Kasu guztietan, argitalpenak urteko abenduaren 31ko egoera islatzen du, aipatu 20. artikuluko xedatu bezala; horrenbestez, ezin dugu ulertu zergatik dagoen "praktika akastuna" edo zergatik dagoen "legeak xedatutakoaren urraketa nabarmena".

Litekeena da baieztapen horiek lotura izatea azken urteetan plantilla organikoa eta langileen zerrenda argitaratzeko foru dekretuak (eta azken kasuan, foru agindua) formalki onetsi izanarekin kasuan kasuko ekitaldiko abenduaren 31 baino beranduago. Edonola ere, inguruabar hori garrantzirik gabekoa da eta ez dakar inongo lege hausterik (aipatu 20. artikuluen arabera, abenduaren 31n egon behar du itxita plantillaren eta langileen zerrendaren berri ematea; izan ere, kontua ez da abenduaren 31n onestea argitalpen ofiziala egiteko behar den tresna formala), eta ez litzateke burugabea izanen bestelako praktika bat eskatzea, kontuan izanda organo eskudunak onespina emateko behar den informazioa (egia esan, konplexua dena, bolumena dela eta) lantzeko kudeaketak eta tramiteak zein diren.

Besterik da galderan egiten den aipamena "Plantilla organikoa... abenduaren 31 ez den egunean onestea"; izan ere, horrek ez du inongo loturarik langileen estatutuko 20. artikuluekin;

horrenbestez, ez da inongo lege-aginduren aurkakoa. Foru erkidegoko administrazioaren plantilla organikoari lehenbizi onespina eman zitzaion, eta une horretatik hari egin zaizkion aldaketak (funtsean, lanpostuak sortu edo amortizatu zirelako) ugari dira; inongo lege-aginduk ez dio aldaketa horiek urteko abenduaren 31 baino lehen egin behar direnik. Hain zuzen ere, eta arestian aipaturiko gardentasun arrazoiengatik, plantilla organikoa (eta ez soilik langileen zerrenda, legeak agintzen duen bezala) abenduaren 31n argitaratzea (eta ez onestea) da urtean zehar plantilla organikoan izan diren aldaketak batera biltzen laguntzen duena, data hori hartuta erreferentzia gisa.

Bestalde, aipamen berezia egin behar zaio txostenaren xede den galderan aipatutako 100/2005 Foru Dekretuari; izan ere, arau horren bidez, berriz ere hasierako onespina ematen zaio foru erkidegoko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoari, 2004 eta 2005 urteetarako sinaturiko akordio sindikalen ondotik eginiko legezko eta erregelamenduzko aldaketen ondorioz, langileen antolamenduan irizpide berriak ezarri baitituzte. Beste behin azpimarratu beharra dago aipatu foru dekretua ez dela mugatzen data jakin bateko plantilla organikoa argitaratzera (izan ere, 2004ko abenduaren 31ko argitalpena Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren martxoaren 23ko 33/2005 Foru Aginduz eman zen); izan ere, langileen estatutuko 19. artikuluan xedatuaren babesean ematen da.

Laburbilduz, eta aztertutako lehen gaiari dago-kionez, ondorioztatu behar da foru erkidegoko administrazioan ez dela inongo praktikarik antzeman langileen estatutuko 20. artikuluan xedatua hausten duenik.

b) Eginiko galderan salatzen den bigarren arau-haustea haxe du ardatz: abenduaren 31n argitaratzen diren langileen zerrendetan ez gehitzea haiek osatzen dituzten funtzionario guztiei dagokien graduari buruzko informazioa.

Egia esan, langileen estatutuko testu bateginaren 20. artikuluko hitzez hitz esaten du gradua dela langileen zerrendaren urteroko argitaratzean agertu behar den elementu edo inguruabarretako bat. Hala eta guztiz ere, arauaren esanahiak eta haren aplikazioak, batez ere norberaren graduaren arautzeari dagozkion lege aldaketa batzuen ondorioz, zalantzan jartzen dute arauaren edukiari lotzea egokia den, eta, aitzitik, haren esanahia berriz interpretatzeko beharra planteatzen dute.

Izan ere, inguruabar pertsonal baten publizitate ofiziala, esate baterako funtzionario baten gradu pertsonalari dagokiona, egokia izan daiteke arau-

petze baten testuinguruan, esate baterako langileen estatutuko 16. artikuluan hasiera batean aurreikusitakoa bezalakoa. Haren arabera, enplegatu batentzat sustapen-elementu horren mailak lortzea, neurri batean (zehazki, antzinatasun hurrenkerarengatik igotzeko erreserbatu-erhuneko aplikatzeari begira), gainerako funtzionarioek aitortuta daukaten gradu pertsonalak baldintzatuta dago.

Hala eta guztiz ere, jakina da langileen estatutuko testu bategineko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera (otsailaren 26ko 5/1991 Foru legeko 13. artikuluan xedatuaren ondorioz), estatutuko 16. artikuluan ezarritako gradu sistema etenik geratu zen 1992ko urtarrilaren 1etik, eta une hartatik hura modu independentean aplikatzen zaio funtzionario bakoitzari aitortuta daukan antzinatasunaren arabera.

Logikoa denez, une horretatik aurrera, funtzionario guztien gradu pertsonala zabaltzeko interes legitimoak behera egiten du neurri handi batean, eta bidea ematen du langileen estatutuko 20. artikuluan jasotako aginduaren kongruentzia eta justifikazioa zalantzan jartzeko.

Edonola ere, kontua ez da arau baten betetzea ustez saihestea, guk hari buruz dugun iritzia pertsonal hutsa oinarri harturik; izan ere, haren aplikazioari buruzko zalantzak arrazoizkoak dira, gure ustez, datu pertsonalen tratamenduari buruzko arauen argitara.

Izan ere, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoak erabiltzen zituen termino berdinetan bada ere) datu pertsonalen tratamenduan eta zabalkundean eragina duten printzipio batzuk biltzen ditu; printzipio horiek kasu honetan duten aplikazioa dela eta, zalantzan jar daiteke komentaturiko arauaren esanahia.

Halaber, datu pertsonalak tratatzerakoan, kalitatearen printzipioak exijitzen du datuok zer helburutarako lortu diren, horietarako tratamendua aproposa, egokia eta neurrikoa izatea (4. artikulua); halaber, datu pertsonalen horien zabalpenak edo

komunikazioak zilegitasun printzipio baten arabera izan behar dute, datuen tratamendua justifikatzen duten funtzioei eta xedeari erreparatuta (11. artikulua).

Ikuspuntu horretatik, argi dago gradu igoerako sistema guztiz indibidualizatu batean, funtzionario bakoitzari dagokion gradu pertsonalaren zabal-kunde orokorrak ez duela, itxura batean, inongo justifikaziorik.

Izan ere, egindako galderak berak ere ez du aipatzen langileen zerrenda argitaratzean aztergai duguna bezalako datu pertsonal bat ez agertzeak zer arrazoi edo helburu legitimori eragin diezaioketen, ez eta ez-agertze horrek ekar ditzakeen kalteak ere; izan ere, arau-haustea baieztatzeke, galde-tzaileak babes bilatzen du haren hitzez-hitzekotasun hutsean.

Azken batean, aipaturiko lege manuaren edukiak aukera ematen du araua ez dela bete esateko, baina uler daiteke foru erkidegoko administrazioaren jarduketak, langile funtzionarioen zerrendaren argitalpenean gradu pertsonalaren erreferentzia kentzerakoan, hobeki egokitzen zaiela informazio pertsonalaren tratamenduan jarraibide izan behar diren printzipioei; printzipio horiek, Konstituzioaren 18.4 artikuluan aitorturiko oinarrizko zuzenbidetik heldu direnez, bere aldetik antolamenduaren aplikazioa eta interpretazioa modulatu behar dute.

Azaldutako arrazoen multzoari jarraituz eta egindako galdera zehatzei erantzun zehatza emanaz, baieztatu behar da Nafarroako Gobernuak ez duela hautsi Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko 20. artikuluan xedatutakoa. Azaldutako arrazoi horiengatik berengatik, eta lege-arauen ez-betetzetik ez dela gertatu ulertzen ez dugun neurrian, ez dugu aurreikusitako honetan neurririk hartzea edo berariazko jarduketarik egitea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 28an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du lehortea jasaten ari diren Nafarroako eremuak hautatzeko erabili diren irizpideei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

- Zer irizpide erabili ditu Nekazaritza Departamentuak lehortearen eragina jasan duten Nafarroako eskualdeak hautatzeko, uztailaren 29ko 2500/2005 Aginduaren aplikazio eremuan sar daitezen? Zehaztu datuen bidez:

Erantzuna: Lehortearen ondorioz abeltzaintzako aprobetxamenduetan edo laboreetan eragina jasan duten eskualdeak zehazteko oinarria nekazaritza nahiz ingurumen txosten batzuk izan dira, Nafarroako laboreen egoerari eta lehortearen ondorioz izan duten kalteari buruzkoak, bai eta errendimenduei buruzko datu estatistikoak ere. Departamentuko zerbitzu teknikoek egin dute lan hori.

Lehorreko belar-laboreak

Egoera horretan, eta irizpide objektibo batez zehaztearren zein eskualdetan esan daitekeen ohiko uzta baten gaineko galerak eskatutako kaltearen atalasea iritsi direla, alderatu egin ziren 2005eko uzta eta azken hiru urteetan eskualdean izandako batez besteko uzta.

2005eko zereal-kanpainaren balantzeari buruz departamentuak eginiko txosten teknikoetatik ondorioztatu zen VII. eskualdean gertatu zirela lehortearen ondorioz konparaziozko errendimendu-balio txikiak. Hona VII. eskualdean zerealetan izandako kalteak: ehuneko 30 neguko garaga-

rrean eta ehuneko 38 gari bigunean; gari gogorrean, berriz, ez zen galerarik izan.

Abeltzaintzako aprobetxamendurako larreak

Eskualde mailako galerak zehazteko irizpide objektibo bat erabili zen, bazka-ustiategiak aurreikuspenak datu klimatikoaren arabera egiteko FAO metodoaren aplikaziotik heldu dena hain zuzen ere; metodo hori labore jakin baten ekoizpenaren eta labore horren ebapotranspirazioaren arteko erlazioan oinarritzen da. Abuztuan egin zen azterlanean horri buruz jaso ziren datuen arabera, I. eta II. eskualdeetako kalteak ehuneko 20ko atalasetik goiti zeuden, nahiz eta jakin kalteak ezin zirela behin betikotzat hartu, egoera klimatologikoen bilakaeraren arabera alda baitzitezkeen. Hori dela eta, I. eta II. eskualdeak abeltzaintzako aprobetxamenduetan lehortearak eragindako kalteen barruan sar zitezkeen eskatu zen; izan ere, mendialdean kalteak gutxienez ere ehuneko 20ko atalasea iristea exijitzen da, Europako arauari jarraikiz.

- Zergatik ez da sartu VI. nekazaritza eskualdea ukitutako eskualdeen artean, lehorreko laborantzak direla eta? Ba al dago erabaki hori justifikatzen duen datu konparaturik?

Erantzuna: VI. eskualdean % 7ko galerak izan dira garagarrean, % 10ekoak gari bigunean eta ez da galerarik izan gari gogorrean.

Are gehiago, Agrosegurok emandako datuen arabera -lehortearen ondoriozko tasazioen fruitu dira- zerealeetako kalteak % 40,23 egiten dute VII. eskualdean, eta % 5,42 VI. eskualdean; ehuneko horiek ateratzeko, galdu diren kilogramo guztiak zati aseguratu diren kilogramo guztiak egin da.

- Ba al da departamentuak lehortearak ukitutako Nafarroako eskualdeen zerrenda aldatzeko aukerarik, baldin eta VI. nekazaritza eskualdeko nekazariak egiaztatzen badute, nekazaritza ustiategiak buruz dituzten datuen bidez, haien ekoizpenek Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako kaltemaila jasan dutela? Baiezkoan, zer prozedura jarraituko litzateke?

Erantzuna: Hasiere batean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroa 10/2005 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio eremuan sartzea eskatu zuen 2005eko uztailaren 22an, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioi ingurumen nahiz klima arloko ezberharretarako bulego iraunkorreko zuzendariari igo-

rritako idazki baten bidez, eta jarraitu beharreko prozedura adieraz zekigula premiatu zuen.

Ministerioak idatziz erantzun zion idazkiari 2005eko abuztuaren 3an; erantzunean, besteak beste, ondokoa adierazi zuen: "lehorsteak kaltetutako eskualdeak –Nafarroako Gobernuak jakinaraziko digu zein diren– sartuko ditugu".

Dena dela, lehorsteak VI. eskualdean eragindako kalteak direla-eta, departamentu honetan eskaera ofizial bakarra jaso dugu, Villafrancako Udalarena hain zuzen. Eskaeran eskatzen dute "lehorstearengatiko laguntzak jasoko dituzten eskualdeen artean sar daitezela Villafranca eta Cadrei-

tako udalerrriak, Bardeako ubidearen bidez ureztatzen baitira." Udalak dakienez, departamentuak egin zuen eskaera hori, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, abuztuaren 28ko 2738/2005 Aginduan xedatuaren arabera, aintzat hartu zuen eskaera.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, lehorsteak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak lehorsteak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du lehorsteak eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen laguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ondoko neurriak aurreikusi ditu lehorstea dela eta:

1. Baltsak eta askak urez hornitzea

Neurri hori eraginkorra izan da eta da; uraren garraioa ITG Ganaderorekin koordinazioan gauzatu da, Nafarroako Gobernuaren kargura, ura eramateko abereek ur premia larria duten lekuetara.

2. Zuzeneko dirulaguntzak.

• Nekazarien ordezkariari iragarri zaien legez, zuzeneko laguntza bat ezarri nahi da, Urbanan eta Andian eta I. eta II. eskualdeetan bazkatzen den ahuntz-, ardi-, zaldi- nahiz haragitarako behi-azierendako tamaina handiko elikagaietako galearak konpentsatzeko.

Nagusiki nekazari diren titularrak izanen dira onuradunak, baldin eta euren ustiategiak eskualde horietan badaude edo beste eskualde batzuetan egonda ere euren abereak larrez bazkatzen badira aipatu eskualde edo eremuetan.

Laguntzaren zenbatekoa gertatu den kaltearen % 30 ingurukoa izanen da.

• Neurri horiek emateko beharrezkoa izanen da Europako Batzordeak kasuko espedienteak onestea. Neurriaren munta ekonomikoa 1.200.000 eta 1.800.000 euro bitartekoa izanen da.

3. Egiturazko neurriak

Nekazaritza Departamentuak, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuarekin batera, baltsak eratuko ditu mendialdean 2006ko ekitalditik aitzina abereei ura emateko eta suteak itzaltzeko.

4. Zerga-murrizketa bereziak

Neurri hori ekainaren 20ko 10/2005 Legegintzako Errege Dekretuan xede berarekin ezarri zenaren ordezkaria da, eta aplikatzeko izanen

zaie legegintzako errege dekretuko 3. artikuluan jasotzen den neurria aplikatzekoa zaien Nafarroako nekazaritzako ustiategi guztiei, artikulua hori aplikatzekoa den lurralde eremuan baitaude, Lehendakariaren abuztuaren 26ko 2738/2005 Aginduan zehaztu bezala.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, udalei euren lurrek izan dezaketzen debaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak udalei euren lurrek izan dezaketzen debaluazioa dela-eta emanen zaien ordainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak ondoko galdera egin du: Gobernuak ba al du asmorik udalentsako laguntza edo ordainik ezartzeko, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) aplikazioaren ondorioz euren lurrek izan

dezaketzen debaluazioa dela-eta?. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Zalantza dago Europar Batasuneko 1782/2003 Erregelamenduaren aplikazioari buruz. Erregelamendua NPBaren erreformako arau funtsezkoa da.

Halatan, ez dago aurreikusita laguntzak edo konpentsazioak ezartzea lurren balioaren edo errentamendu-kanonen balizko debaluazioa dela-eta, ezta udalentsat ere herrilurreko lurzatiengatik ez jabe partikularrentzat.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 30ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

– Zenbateko dirulaguntzak eman dizkio Nafarroako Gobernuak Corporación Siderurgia Integral y Aceralia enpresari –eta horren ondoren negozioa ustiatzen jarraitu duten enpresei, Arbed taldea sartu ondoren eta Arcelor, Aceralia Transformados eta abar eratu ondoren– enplegua sortzeagatik, inbertsioengatik, ingurumena dela eta edo beste arrazoi batzuegatik 1994. urtetik hasita orain arte? Zehaztu urteka eta lantokiak dauden herrien arabera.

URTEA	SAILAREN	ZENBATEKOA	LANTOKIA	AZALPENA
1994	Laminaciones de Lesaka, S.A.	61.134.000 pezeta.	Arratzubi (Lesaka)	Dirulaguntzak kutsaduraren aurka
1999	Aceralia Transformados, S.A.	1.576.500 pezeta.	Arratzubi (Lesaka)	Transf. Hondakin uren azterlana
2000	Aceralia Transformados, S.A.	5.189.501 pezeta.	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	Ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzea
2000	Aceralia Transformados, S.A.	3.450.749 pezeta.	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	IKS ezartzea eta ziurtagiria
2001	Aceralia Transformados, S.A.	67.115,76 €	Katazpegi (Lesaka)	Katazpegiko zabortegia egokitzea
2001	Aceralia Transformados, S.A.	4.836,64 €	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	IKS ezartzea eta ziurtagiria
2001	Aceralia Transformados, S.A.	317,03 €	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	Ingurumenaren gaineko eragina zuzentzea
2001	Aceralia Transformados, S.A.	22.537,95 €	Arratzubi (Lesaka)	P1250 plantako biltegiak
2002	Aceralia Transformados, S.A.	3.289,04 €	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	Ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzea
2002	Aceralia Transformados, S.A.	11.878,83 €	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	Ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzea
2002	Aceralia Transformados, S.A.	3.606,07 €	Zalain (Lesaka) eta Berriobeiti	Ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzea

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 22an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Corporación Siderurgia Integrali eta Aceraliari emandako dirulaguntzei buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan dauzkaten ekoizpen zentroetan egitako inbertsioengatik Aceralia taldeak eta haren fili-alek 1994tik gaur arte jaso dituzten funts galdura-

ko dirulaguntzak irailaren 16ko 1/1982 Foru Dekretuan eta, aurrerago, azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuan araututa daude, eta 6.544.812,45 euro egiten dute; horrek dirulaguntzetara bildutako inbertsio guztien -73.005.155,37 euro- % 8,96 egiten du.

Halaber, enplegurako dirulaguntzaren kontzeptuan 24.040,48 euroko laguntza bat eman zen, 8 lanpostu mugagabe sortzeagatik. Dirulaguntza hori Aceralia Rotec, SL enpresari ordaindu zitzaion.

Tramitaturiko inbertsiorako eta enplegurako laguntzen espedienteen xehetasunak erantsita datorren taulan ageri dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 30ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Esped. zk.	Enpresa onuraduna	Dirulaguntzetara bildutako inbertsioa	Herria	Inbertsioa	Laguntzaren %	Inbertsiorako dirulaguntza	Ordainketaren data	Ordaindutako kopurua	Enplegurako dirulaguntza	Ordainketaren data	Ordaindutako kopurua
2053	ACERALIA TRANSFORMADOS, S.A.	26.917.330,79	Legasa	277.220,99	% 10	2.708.474,37	1997/12/30	759.781,51			
			Lesaka	23.297.399,95			1999/01/19	974.346,43			
			Berriobeiti	3.342.709,85			1999/1/26	974.346,43			
2404	ACERALIA TRANSFORMADOS, S.A.	19.372.230,35	Legasa	15.105.594,84	% 10	1.937.223,04	2000/10/14	968.611,52			
			Lesaka	2.748.645,18							
			Berriobeiti	1.517.990,33			2001/10/23	968.611,52			
2884	ACERALIA TRANSFORMADOS, S.A.	129.228,48	Lesaka	129.228,48	% 8%	10.338,28	2004/10/13				
3469	ACERALIA TRANSFORMADOS, S.A.	5.050.774,24	Legasa	1.754.483,82	% 5	222.674,99	2003/12/31				
			Lesaka	2.736.341,66							
			Berriobeiti	559.948,76							
4820	ACERALIA TUBOS, S.L.	9.925.109,47	Lesaka	9.228.826,02	% 5	454.365,15	2004/03/24				
			Berriobeiti	696.283,45							
5153	ACERALIA TUBOS, S.L.	237.694,25	Lesaka	237.694,25	% 8	19.015,54	2004/10/13				
5154	ARCELOR CONSTRUCCION ESPAÑA, S.L.	7.538.701,07	Berriobeiti	7.538.701,07	% 8	603.096,09	2004/10/13				
3132	ACERALIA COLORACERO, S.L.	2.382.888,48	Legasa	2.382.888,48	% 15	357.433,27	2003/04/01				
3887	ACERALIA ROTEC, S.L.	1.451.198,24	Bera	1.451.198,24	% 16	232.191,72	2003/11/26		24.040,48	26/11/2003	21.035,42
										17/11/2004	3.005,06
	GUZTIRA	73.005.155,37				6.544.812,45		24.040,48			

Galdera, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 13ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ibilgailuen Azterketa Teknikorako instalazioei buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa hiru kontzesio-eremutan banatuta dago. I. eremuaren titularra Tüv Rheinland Navarra, S.A. enpresa da, eta II. nahiz III. eremuena, berriz, Revisiones de Navarra, S.A. I. eremuan IAT estazio bat dago, hain zuzen ere Iruñeko Mercairuñaren barruan dagoena. II. eremuak bi estazio ditu, bata Azkoienen eta bestea Noainen. III. eremuak estazio bat du Tuteran.

I. eremuko kontzesio-kontratuak 1989ko maiatzaren 25ean hartu zuen indarra; II. eremukoak 1990eko irailaren 11n eta III.ekoak 1996ko azaroaren 12an.

Kontzesio horien indarraldia 20 urtekoa da; Nafarroako Gobernua aukera du epe hori luzatze-

ko, bata bestearen ondotik hamar urteko epean, gehienez ere laurogeita hemeretzi urte egin arte.

Gobernu honek prozedura negoziatua abiarazi du gaur egungo kontzesio-hartzaileekin, zerbitzua herritarrei hurbiltzearen, eta horretarako kontuan izan ditu egun dagoen eskaria eta arlo horri buruzko lege esparrua –Telekomunikazioen sektoreko presako neurriei buruzko ekainaren 23ko 7/2000 Errege Lege-dekretua, IAT estazioek euren jarduera gauzatzeko baimena lortze aldera bete behar dituzten eskakizun teknikoak ezartzen dituen ekainaren 27ko 833/2003 Errege Dekretua eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren urriaren 9ko 325/2003 Foru Agindua, zeinaren bidez eten baitira Ibilgailuen Azterketa Teknikoen jarduera gauzatzeko baimenak, harik eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoen zerbitzu publikoaren egungo kontzesioak iraungi arte.

Zerbitzu hori hobetze aldera IAT estazio berriak eraikitzeke plana taxutu da. Lehenengo fasean, Lizarra eta Altsasuko estazioak bi urteko epean eraikitzea aurreikusten da; aurrerago, bigarren fasean, Zangoza eta Baztangoak eraikiko dira, lau urteko epean gehienez ere.

Estazio horiek finkoak izanen dira, eta horiek eraiki nahiz hornitzeko erregelamenduzko baldintza teknikoak betetzea eskatuko da, eta bertan egindako azterketen kalitatea bermatuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 29an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, gune publikoetan merkataritza bizkortzeko programak gauzatze-ko laguntza-programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak gune publikoetan merkataritza bizkortzeko programak gauzatze-ko laguntza-programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 19ko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Lizarra, Tuter, Tafalla eta Iruñean merkataritza bizkortzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Merkataritzaren sektoreari laguntzeko neurriak arautzen dituen maiatzaren 19ko 125/2003 Foru Dekretuak aurreikusia du gune publikoetan merkataritza bizkortzeko proiektuak garatzeko laguntza programa bat. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak lankidetzaren hitzarmenak izenpetu ditzake toki entitateekin, aipatu proiektuak sustatzeko.

Departamentuak ondoko irizpideak definitu zituen programan zer herri sartuko diren zehazteko:

– 10.000 biztanletik gorako herriak izatea.

– Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduaren Erregelamendua onesten duen 150/2004 Foru Dekretuan ezartzen diren eremuetako baten hiri-burua izatea.

– Nafarroaren batez besteko merkataritza-dentsitatea baino dentsitate handiagoa izatea (merkataritzako establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko).

Hiru irizpide horiek aplikatuta, ondoko herriak sar litezke bertan: Iruña, Lizarra, Tafalla eta Tuter. Toki entitate horiei aukera eskaini zitzaizkien laguntza har zezaketen proiektuak aurkezteko, programaren barruan eta 125/2003 Foru Dekretarekin bat:

– estrategiak eta inbertsioak aztertu, diagnostikatu eta zehazteko azterlanak.

– hirigintza eta merkataritza arloko inbertsioak, merkataritzako espazioak hobetu edo egokitzearen.

2005eko ekitaldian kasuko kontusaila onetsita, egin nahi zituzten proiektuei nahiz horien kostuari buruzko informazioa eskatu zitzaion toki entitate bakoitzari. Informazio hori oinarri, tramitatu, onetsi eta sinatu diren lankidetzaren hitzarmenak prestatu ziren.

Lankidetzaren hitzarmenetan 2004ko urriaren 1etik 2005eko azaroaren 30era bitarte bete edo adjudikatu diren proiektuak jasotzen dira.

– Betetakoen kasuan, alde aurretik justifikatu beharra dago dirulaguntza ordaintzeko.

– Administrazio adjudikazioa egon den baina 2005eko azaroaren 30ean bukatu gabe dagoen kasuetan, aurreratu egiten da dirulaguntza, baina justifikazioa eskatzen da ondotik, eta behin justifikatuta bateratu egiten da ordaindutako aurrerakina, edo hura itzultzeko eskatu.

a) Azaldutakoa gorabehera, lankidetzaren hitzarmenen indarraldia heldu den azarora bitartekoa da; halatan, udal onuradunek ekintzak aplikatzen jarraitzeko aukera dute. Eranskinean doaz haietan jasotzen diren jarduketak.

b) Zenbatekoa, guztira, 210.095,91 eurokoa da, eta 2005eko gastuen aurrekontuko ondoko kontusailari egotzi zaio: 850002-81410-7600-431400 "Toki entitateentzako transferentziak, merkataritza ekipamenduetarako". Aurrekontuko hasierako zuzkidura zertxobait igo da transferentzia bidez, proposatu diren proiektuak osorik egin ahal izateko.

c) Esan bezala, sinatu diren lau hitzarmenak dira programaren barruan sinatu diren lehendabizikoak. 2004an hasi ziren tramitatzen, baina ezin izan zen administrazio prozesua bukatu.

Erabakiei atzera ekin zaie 2005eko aurrekontuko kontusail baliokidearekin.

Proiektuetan sartzeko epe bat ezarri da, 2004ko azken hiruhilekora arte atzera egiten duena, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kargura laguntza-lerro hori baliatzeko interesa duten udalak bertan sartzeko.

d) Orain arte Tafallako Udalak baino ez du aurkeztu diruz lagundutako proiektuen justifikazio partziala.

Hitzarmenetan abenduaren 15eko gehieneko epea jartzen da dokumentazioa aurkezteko. Hor-taz, epe hori igaro arte ezin da emaitzen baliospe-nik egin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 6an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

UDALA	PROIEKTUA	DIRUZ LAGUNTZEKO (%)	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
Iruña	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udal merkatuei buruzko marketin planaren azterlana ▪ Auzoz auzoko merkataritzako jarduera planen definiziorako azterlana ▪ II. zabalguneko merkatuko fatxadak zaharberritzea. 	%60 %60 %40	90.000,00
Tutera	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiri altzariak eta ekipamendua berritzea ▪ Merkataritza eremuetako seinaleak ▪ Tuterako merkataritzaren azterketa eta diagnosia, gune bat abian jartze aldera 	%40 %40 %60	30.017,06
Lizarra	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bideragarritasun azterlanak eta merkataritzako eremurako helburu estrategikoak zehaztea 	%60	27.840,00
Tafalla	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiri altzariak berritzea ▪ Udal merkatua hobetzeko proiektua ▪ Alde zaharra oinezkoentzat bihurtzea ▪ Aparkalekuaren bideragarritasunaren azterlana 	%40 %40 %40 %60	62.238,85
GUZTIRA			210.095,91

Galdera, Bideko Autobian paratu diren kamerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak Bideko Autobian paratu diren kamerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-mentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jau-

nak galdera egin du Bideko Autobian erabilgarri daude zatietako hainbat tokitan jarritako kamerei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Bideko Autobiako zati erabilgarrietan badira, zenbait tokitan, kamerak. Zer xede dute eta zertarako erabiltzen dira?

1.- Kamera horiek ondoko eginkizunak dituzte:

a) Neurketa-estazioetan trafikoaren intentsitateari buruz lortutako datuak egiaztatu ahal izatea (ikusizko kontaketa bidez egiaztatzea).

b) Trafikoaren bilakaera zaintzea, izan litezkeen gorabeherak hautematea (istripuak, auto-ilarak, oztopoak galtzadan, egoera bereziak eta abar),

trafikoa modu eraginkorrago eta seguruago batez kudeatu ahal izateko.

5.- Hona kamerak non dauden:

a) Kanpoko aldean

Bi kamera jartzen dira (noranzko bakoitzean bat) neurketa-estazio bakoitzeko; estazio bat dago bi lotunerik behin. Guztira 40 kamera daude kanpo aldean.

b) Erreniegako tuneletan

Kamera bat dago 100 metrorik behin, bi tuneletan hain zuzen ere; guztira 20 kamera daude.

Halatan, guztira 60 kamera daude jarrita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioarentzako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioarentzako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Euskal Pilotako Nazioarteko Federazioarentzako dirulaguntzei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioaren 2003. urteko jardueren oroitidazkian eta 2004. urterako ekintza planean Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren dirulaguntza bana agertzen dira, bakoitza 60.000 eurokoa. Zenbateko horiek Gobernu zentralaren menpe dagoen Kirolen Kontseilu Nagusiak emaniko dirulaguntzaren parekoak dira.

1. eta 2. 1.- Zergatik eta zer kontzepturengatik eman ziren Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza horiek? 2.- Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik eman al dio Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioari 2004. eta 2005. urteetan? Hala bada, zen-

batekoak izan ziren dirulaguntza horiek eta zer kontzepturengatik eman ziren?

Galderan adierazitako dirulaguntzak 2004an emateko arrazoia izan zen Nafarroako aurrekontu orokorretan 60.000 euroko kontusail izendun bat sartu zela, transferentzia arruntei zegokiena (dirulaguntzak), ondokoa hain zuzen ere: 940002 95120 4810 487504 "Lankidetzaren hitzarmena Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioarekin".

Kontusail hori betez, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 11ko 411/2004 Ebazpenaz, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eta Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioaren –zeinak egoitza Iruñean baitu– arteko lankidetzaren hitzarmena, federazio horri sostengua ematen laguntzeko eta haren ohiko programetan laguntzeko asmoz, hain zuzen ere euskal pilotaren kirol modalitatea mundu mailan eta gure erkidegoan garatu dadin sustatze aldera.

Aurrerago, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 2ko 488/2004 Ebazpenaz, izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, onespina eman zitzaion 60.000 euroko ordainketa egiteari, horixe baita aipatu kontusailean ezarritako dirulaguntzaren zenbatekoa.

2005ean, Nafarroako aurrekontu orokorretan, 60.000 euroko kontusail izendun bat sartu zen, transferentzia arruntei zegokiena (dirulaguntzak), ondokoa hain zuzen ere: 940002 95120 4810 487504 "Lankidetzaren hitzarmena Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioarekin".

Aipatu kontusaila betetzeko eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 2ko 488/2004 Ebazpenaz onetsitako akordioaren esparruan, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 27ko 299/2005 Ebazpenaz onespena eman zitzaion 65.000 euroko ordainketa egiteari, horixe baita aipatu kontusailan ezarritako dirulaguntzaren zenbatekoa.

3.- Nafarroako Gobernuak eman al dizkie laguntzak edo dirulaguntzak euskal pilotarekin loturiko jarduerak gauzatzen dituzten erakundeei edota eman al ditu dirulaguntzak kirol diziplina horrekin zerikusia duten ekitaldiak egiteko 2003., 2004. eta 2005. urteetan? Hala baldin bada, zer dirulaguntza eman ziren? Zer entitateei eman zitzaizkien eta zer ekitaldi egiteko? Noiz eman ziren dirulaguntza horiek?

Galdera honi erantzuteko, lehenbizi euskal pilotako kirol modalitateko lehiaketak antolatzeagatik edo haietan parte hartzeagatik kirol klub eta elkarteei emandako dirulaguntzak aipatu behar ditut.

Hartara, 2003an kirol klub eta elkarteei 34.055 euroko dirulaguntzak eman zitzaizkien guztira (taula bat erantsi dugu entitateen, jardueren, emandako zenbatekoen eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

Hartara, 2003an Nafarroako Pilota Federazioari 129.810 euroko dirulaguntza eman zitzaion guztira (taula bat erantsi dugu entitateen, jardueren, emandako zenbatekoen eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

2004an ere kirol klub eta elkarteei 49.014 euroko dirulaguntzak eman zitzaizkien guztira (taula bat erantsi dugu entitateen, jardueren, emandako zenbatekoen eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

rekin), eta, halaber, guztira 136.209 euro egiten duen dirulaguntza bat Nafarroako Pilota Federazioari (taula bat erantsi dugu kopuruen, jardueren, emandako zenbatekoaren eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

2005ean, guztira 54.987 euro egiten duten dirulaguntzak eman zaizkie klub eta elkarteei (taula bat erantsi dugu entitateen, jardueren, emandako zenbatekoen eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin), eta, halaber, guztira 176.206,85 euro egiten duen dirulaguntza bat Nafarroako Pilota Federazioari (taula bat erantsi dugu kopuruen, jardueren, emandako zenbatekoaren eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

Hala eta guztiz ere, argitu beharra dago 2005eko datuak partzialak direla, deialdiak oraindik ere ebatzi gabe daudelako.

Bigarrenik, toki entitateentzako dirulaguntzak ere badaude, euskal pilotarekin loturiko ikuskizun eta ekitaldiak antolatzeko:

Hartara, 2003an toki entitateei 19.649,35 euroko dirulaguntzak eman zitzaizkien guztira eta 2004an 31.760,17 euroko dirulaguntzak (taula bat erantsi dugu entitateen, jardueren, emandako zenbatekoen eta ebazpen zenbakiaren azalpenarekin).

2005eko deialdia oraindik ere ebatzi gabe dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 7an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA					
NKGiak EMANDAKO DIRULAGUNTZEN AZALPENA					
URTEA	FUNTZIONAMENDUA-KUDEAKETA	TEKNIFIKAZIO PROGRAMA	EKIPAMENDUA	MUNDUKO TXAPELKETA	GUZTIRA
2003	78.738,00	40.500,00	1.951,00	8.621,00	129.810,00
2004	96.954,00	39.255,00			136.209,00
2005	128.009,43	44.533,50	3.663,92		176.206,85

OHARRA: 2005eko dirulaguntza behin-behinekoa da, azken ordainketa egin gabe baitago oraindik; kopuruak 1. zatiko gastu errealei egokitu-tuz: 2003: maiatzaren 15eko 265/2003 Ebazpena (hitzarmena sinatzea); maiatzaren 28ko 303/2003 Ebazpena (1. epea); abenduaren 31ko 8212/2003 Ebazpena (amaiera). 2004ko mundu txapelketaren ebazpena: apirilaren 13ko 251/2004 Ebazpena (aurrerakina); ekainaren 28ko 455/2004 Ebazpena (hitzarmena sinatzea); abuztuaren 3ko 527/2004 Ebazpena (2. epea); azaroaren 15eko 749/2004 Ebazpena (amaiera). 2005: apirilaren 8ko 187/2005 Ebazpena (aurrerakina); maiatzaren 31ko 308/2005 Ebazpena (hitzarmena sinatzea); ekainaren 24ko 391/2005 Ebazpena (2. ordainketa).

TOKI ENTITATEA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPENA	2003	ZENBATEKOA	2004	ZENBATEKOA
Aibar	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Alsatsu	esku-pilota	partida	644/2004			2004	3.000,00
Alsatsu	erremontea	partida	676/2004			2004	417,87
Alsatsu	esku-pilota	partida	786/2004			2004	417,87
Artaxoa	esku-pilota	partida	618/2003	2003	300,00		
Artaxoa	esku-pilota	partida	786/2004			2004	208,94
Artaxoa	pala	partida	786/2004			2004	208,94
Azkoien	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Azkoien	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Barañain	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Barañain	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Barañain	esku-pilota	partida	707/2003	2003	600,00		
Barañain	esku-pilota	partida	786/2004			2004	417,87
Barañain	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Barasoain	esku-pilota	partida	618/2003	2003	420,00		
Bera	esku-pilota	partida	429/2005			2004	291,79
Berbintzana	esku-pilota	partida	618/2003	2003	348,00		
Berbintzana	esku-pilota	partida	429/2005			2004	208,92
Berriozar	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Berriozar	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Buñuel	esku-pilota	partida	676/2004			2004	174,10
Burlata	esku-pilota	partida	618/2003	2003	300,00		
Burlata	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Cabanillas	zesta-punta	berariaz sustatzea	682/2004			2004	2.751,17
Cadreita	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Cadreita	esku-pilota	partida	676/2004			2004	302,93
Cadreita	esku-pilota	partida	429/2005			2004	302,93
Caparroso	esku-pilota	partida	429/2005			2004	191,51
Cascante	esku-pilota	partida	429/2005			2004	507,14
Castejón	esku-pilota	partida	416/2003	2003	300,00		
Castejón	esku-pilota	partida	676/2004			2004	208,92

TOKI ENTITATEA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPENA	2003	ZENBATEKOA	2004	ZENBATEKOA
Cintruénigo	esku-pilota	partida	416/2003	2003	341,38		
Cintruénigo	esku-pilota	partida	618/2003	2003	508,50		
Cintruénigo	esku-pilota	hitzarmena federazioarekin	777/2003	2003	1.665,00		
Cintruénigo	esku-pilota	hitzarmena federazioarekin	677/2004			2004	913,55
Esteribar	esku-pilota	partida	676/2004			2004	402,17
Etxarri-Aranatz	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Irunberri	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Irurtzun	esku-pilota	partida	618/2003	2003	450,00		
Izaba	zesta-punta	partida	618/2003	2003	37,50		
Izaba	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Izaba	esku-pilota	partida	676/2004			2004	121,17
Izaba	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Izaba	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Lerín	esku-pilota	partida	618/2003	2003	329,25		
Lerín	esku-pilota	partida	707/2003	2003	500,00		
Marcilla	esku-pilota	partida	416/2003	2003	600,00		
Marcilla	esku-pilota	partida	618/2003	2003	996,75		
Marcilla	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Mendabia	esku-pilota	partida	618/2003	2003	300,00		
Mendabia	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Mendabia	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Mendabia	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Mendabia	esku-pilota	partida	429/2005			2004	290,22
Milagro	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Miranda de Arga	esku-pilota	partida	618/2003	2003	319,00		
Miranda de Arga	esku-pilota	partida	429/2005			2004	365,61
Murieta	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Murillo el Fruto	esku-pilota	partida	618/2003	2003	522,88		
Murillo el Fruto	esku-pilota	partida	429/2005			2004	388,24
Murillo el Fruto	esku-pilota	partida	429/2005			2004	388,24
Noain	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Noain	esku-pilota	hitzarmena federazioarekin	777/2003	2003	3.000,00		
Noain	zesta-punta	berariaz sustatzea	682/2004			2004	4.075,80
Noain	esku-pilota	hitzarmena federazioarekin	677/2004			2004	2.194,24
Noain	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Oibar	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Olazti	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Oltza	esku-pilota	partida	429/2005			2004	174,10
Orkoién	esku-pilota	partida	618/2003	2003	600,00		
Orkoién	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
Pitillas	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87

TOKI ENTITATEA	MODALITATEA	AZALPENA	EBAZPENA	2003	ZENBATEKOA	2004	ZENBATEKOA
Puiu	esku-pilota	partida	618/2003	2003	184,12		
Puiu	esku-pilota	partida	429/2005			2004	139,28
S. Martin Unx	esku-pilota	partida	618/2003	2003	435,00		
S. Martin Unx	esku-pilota	partida	618/2003	2003	180,00		
S. Martin Unx	esku-pilota	partida	707/2003	2003	500,00		
S. Martin Unx	esku-pilota	partida	676/2004			2004	417,87
S. Martin Unx	esku-pilota	partida	429/2005			2004	208,94
Santakara	esku-pilota	partida	429/2005			2004	417,87
Sartaguda	esku-pilota	partida	429/2005			2004	208,94
Tafalla	esku-pilota	partida	618/2003	2003	311,97		
Tafalla	esku-pilota	partida	707/2003	2003	500,00		
Tafalla	esku-pilota	partida	676/2004			2004	148,86
Tafalla	esku-pilota	partida	676/2004			2004	203,17
Valtierra	esku-pilota	partida	676/2004			2004	151,47
Zangoza	esku-pilota	partida	618/2003	2003	300,00		
Zangoza	esku-pilota	partida	707/2003	2003	600,00		
Zangoza	esku-pilota	partida	644/2004			2004	3.000,00
				2003	19.649,35	2004	31.760,17

KLUBA/ ENTZATEA	MODALITATEA	AZALPENA	KODEA	2003 EBAZPEN ZK. (03)	2003 ZENBATEKO A 2003an	2004 EBAZPEN ZK. (04)	2004 ZENBATEKO A 2004an	2005 EBAZPEN ZK. (05)	2005 ZENBATEKO A 2005ean	GUZTIRA
Agoltz	Erreminta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Erreminta	1N	225/03	1.341,00	480/04	1.500,00	437/05	3.750,00	6.591,00
Agoltz	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	1.239,00	480/04	3.750,00	437/05	3.815,00	4.989,00
Alaisu	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	2.109,00	480/04	3.750,00	437/05	3.815,00	9.674,00
Alaisu	Piloteleku labur	Oleadiako Sanokristo trofeo (pilota)	AED	740/03	1.200,00	5/05	1.500,00			2.700,00
Alaisu	Esku-pilota	Europako txapelketa.	AN			784/04	628,00			628,00
Aralar mendi	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	1.357,00	309/04	3.750,00	437/05	3.750,00	8.857,00
Aralar Mendi	Esku-pilota	Espainiako Klubn arteko txap. 2. dibisioa.	1N	789/03	143,00	309/04	800,00	437/05	958,00	1.756,00
Aralar mendi	Esku-pilota	Espainiako Klubn arteko txapelketa. 1. dibisioa. Esku-pilota	AN			480/04	574,00			143,00
Aralar mendi	Esku-pilota	Europako klubn arteko txapelketa.	AN							574,00
Beti Onak	Esku-pilota	Espainiako txapelketa. 1. eta 2. dibisioa. Pilot aleteki laburra.	AN	225/03	601,00	480/04	2.000,00	437/05	971,00	971,00
Cabanillas Jai Alai	Zesta-punta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Zesta-punta	1N	225/03	209,00	480/04	209,00	435/05	2.000,00	4.801,00
Lagunak	Esku-pilota	Espainiako Klubn arteko txapelketa. 3. dibisioa. Esku-pilota.	AN			480/04	209,00			209,00
Larraina	Erreminta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Erreminta	1N	789/03	1.646,00	309/04	3.750,00	437/05	3.876,00	9.272,00
Noain Jai Alai	Zesta-punta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Zesta-punta	1N	225/03	601,00			435/05	2.000,00	2.601,00
Noain Jai Alai	Zesta-punta	Espainiako irekia	AED	45/04	1.140,00					1.140,00
NUP	Erreminta	Espainiako Txap. 2. dibisioa.	1N					437/05	1.227,00	1.227,00
NUP	Pilota	Unibertsitateen arteko nazioarteko torneo	AED					431/05	1.200,00	1.200,00
Oberena	Erreminta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Erreminta	1N	225/03	2.661,00	480/04	3.750,00	437/05	3.876,00	10.287,00
Oberena	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	2.472,00	480/04	3.750,00	437/05	3.865,00	10.087,00
Oberena	Erreminta	Espainiako Txap. 1. dibisioa.	1N					437/05	1.500,00	1.500,00
Oberena	Piloteleku labur	Copa S. Luis nazioarteko txap. Kubn (pilota)	AN	784/03	1.688,00	480/04	6.463,00	437/05	2.000,00	10.151,00
Oberena	Piloteleku labur	Espainiako Klubn arteko txap. 1. dibisioa. Esku-pilota.	AN	789/03	1.013,00	480/04	1.500,00			2.513,00
Oberena	Erreminta	Europako txapelketa. Piloteleku laburra.	AN	779/03	400,00			437/05	1.500,00	400,00
Oberena	Esku-pilota	Espainiako Klubn arteko txap. 1. dibi. Esku-pilota/erreminta.	AN	789/03	889,00					2.389,00
Paz de Zizjanda	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	2.383,00	309/04	3.750,00			6.143,00
Paz de Zizjanda	Esku-pilota	Espainiako Klubn arteko txap. 1. dibisioa.	1N					437/05	1.500,00	1.500,00
Paz de Zizjanda Ikastola	Piloteleku labur	Europako klubn txapelketa. Piloteleku laburra.	AD	784/03	574,00					574,00
Pelota Irurtzun	Esku-pilota	Espainiako klubn arteko txap. 1. dibisioa.	1N	789/03	124,00	480/04	800,00	437/05	1.547,00	1.547,00
Pelota Irurtzun	Piloteleku labur	Espainiako klubn arteko txap. 1., 2. eta 3. maila. Pilota dibis.	1N			480/04	3.750,00			924,00
Pelotazale Huarte	Piloteleku labur	Ohorezko dibisioa. Piloteleku laburra	1N			5/05	1.500,00	437/05	3.750,00	3.750,00
Pelotazale Huarte	Esku-pilota	Lau eta erdi txap. Uharre	AED	45/04	1.440,00					6.890,00
Pelotazale Huarte	Piloteleku labur	Espainiako klubn arteko txap. 2. eta 3. kat. Piloteleku labur .	AN	789/03	889,00					889,00
Peña San Sebastián	Erreminta	Espainiako Txap. 1. dibisioa.	1N			436/04	600,00	437/05	1.520,00	1.520,00
S. Fco. Javier-Lodosa	Esku-pilota	Pilota eskolaren arkezpena	AED			857/04	600,00	431/05	300,00	900,00
S. Fco. Javier-Lodosa	Esku-pilota	Virgen de las Angustias II. txapelketa	AED			309/04	910,00			1.170,00
San Juan	Erreminta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Erreminta	1N					437/05	1.500,00	1.500,00
San Juan	Erreminta	Espainiako Txap. 1. dibisioa.	1N							910,00
San Juan	Piloteleku labur	Pilota erreminta. 1. dibisioa.	AN	789/03	663,00					1.500,00
San Migel	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N	225/03	1.172,00			437/05	3.834,00	663,00
San Migel	Erreminta	Espainiako klubn arteko txap. Gomazko pateta.	AN	789/03	521,00					5.006,00
Sanidad	Erreminta	Espainiako Txap. 1. dibisioa.	1N					437/05	1.500,00	521,00
Sanidad	Erreminta	Espainiako Txap. 1. dibisioa.	1N							1.500,00
Sanidad	Pilota	Klubn liga. 1. dib. Erreminta.	AN	789/03	875,00					1.500,00
Tenis Pamplona	Erreminta	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Erreminta	1N	225/03	2.654,00					875,00
Tenisa	Erreminta	Torneo del Jamón	AED	740/03	1.680,00	857/04	1.680,00			2.654,00
Zugarralde	Esku-pilota	Klubn, Espainiako Txap. Ohorezko dibisioa. Esku-pilota	1N					437/05	3.248,00	3.248,00
				2003	34.055,00	2004	49.014,00	2005	54.987,00	141.806,00

Galdera, San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldietan boluntario arituko direnei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldietan boluntario arituko direnei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko boluntarioen programarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldien programazioan, boluntarioei zuzendutako berriraketa proiektu bat sartu du, ekitaldiek garatzen lagundu nahi duten pertsona guztiek haietan parte ahal izan dezaten boluntario gisa.

Pertsona horiei eginkizun batzuk esleituko zaizkie: taldeak laguntzea, bisitari garrantzitsuak

edo ezgaitasuna duten pertsonak laguntzea, erakusketetan eta ekitaldi aretoetan arreta egitea, jendeari informazioa ematea, telefono bidezko laguntza ematea, lehen sorospenak, koordinazioa eta abar.

Lankidetzan horrek hamar egun iraunen du, gutxienez ere, nagusiki 10:00etatik 19:00etara, eta inongo ordainik gabe gauzatuko da.

Antolatzaileek boluntario bakoitzari bere lana gauzatzeko behar duen jantzi-ekipamendua emanen dio, eta haren mantenua ordainduko du lankidetzan diharduen egunetan. Halaber, Iruñetik joan-etorrian ibiltzeko gastuak edo Xabierko egonaldia ordainduko ditu.

2005eko programarako aurrekontua, 16.000 euro egiten duena, "Xabierko balio anitzeko zentroa" izeneko A1410A11002781033110 kontusailaren kargura ordainduko da, 2005eko aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 18/2004 Foru Legeko 24. artikuluari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 13an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Museo Etnografikoaren kokalekuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Nafarroako Museo Etnografikoaren kokalekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako Museo Etnologikoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura eta Turismo Batzordean 2005eko irailaren 13an egin nuen agerraldian Parlamentuari jakinarazi nion bezala, Nafarroako bigarren paradore nazionala Iratxeko monasterioan jartzeko proiektua eta eraikin berean museo etnologikoa jartzea ez dira bateragarriak; hori dela eta, museo etnologikoa non jarriko den zehaztu beharko da.

Kultura eta Turismo Departamentuko Museoen Zerbitzuak eta Ondare Arkitektonikoaren Zerbitzuak lan egin dute beste alternatiba bat bilatzeko eta aztertzeko ahaleginetan, hasierako baldintza batekin: museoa Lizarran edo haren inguruetan jartzea, bere garaian Iratxeko Monasterioan jartzeko izan ziren arrazoi berdinengatik.

Aurreikusirik dago egoitza bakar batean jartzea.

Aukera guztien artean, Kultura eta Turismo Departamentuko teknikariek Lizarrako San Benito komentu zaharraren alde egin dute; komentu hori gaur egun hiri horretako udalarena da.

Arrazoiak asko dira; izan ere, batera biltzen dira planteamendu tekniko hutsak eta planteamendu sozialak, turistikoak, kulturalak eta elkar indartzearenak.

Ikuspuntu teknikitik, tamaina egokia eta barruko espazio garbi eta gardenak dituen eraikina da.

Bildumen ezaugarriei erreparatuta (multzo bir-sortuak, tamaina handiko piezak, pisu handikoak), areto zabalak behar dira, altuera kontrolatukoak eta egituraren gune batzuetan forjatu bereziak dituztenak.

Halaber, ezinbestekoa da eraikinerako sarbideak onak izatea eta sarrera bat baino gehiago izatea (bat jendearentzat eta beste bat zama-lanetarako). San Benito komentuaren kasuan hori guztia posiblea da, zeren eta XVII. mendeko fatxada manierista berreskuratuko bailitzateke. Gainera,

barruan kafetegia dagoenez, zerbitzu hori jartzeko gastua saihestuko litzateke. Garrantzi handiko beste elementu bat da inguruan aparkalekuak egotea; behar hori beteko litzateke Gustavo de Maeztu kalearen ondoko aparkalekuarekin. Horri gehitu behar zaio, alderdi positibo gisa, autobusen geltokia ere bertan dagoela. Garrantzitsua da kontuan izatea museoa naturaren eta ondarearen aldetik erakargarritasun berezia duen eremu batean egonen litzatekeela, eremu zabal eta irekiekin; horrek aukera emanen luke dimentsio bereziko pieza etnografikoak bertan jartzeko, eta hori bisitariarentzat berehala deigarri gertatuko litzateke.

Gogoeta tekniko horiei guztiei gehitu behar zaie eraikin historikoa desnaturalizaturik dagoela honezkero, eta, horrenbestez, eraikin babestua izateari utzi diola. Hori dela eta, behar diren lanak egin daitezke hartan proiektu berezi honen berezko beharizantetara egokitzeko, museo egokia izan dadin.

Joan zen urriaren 6an, Kultura zuzendari nagusi Camino Paredes Giraldo eta Turismo zuzendari nagusi Carlos Erce Eguaras jauna Lizarrako alkate M^a José Fernández andrearekin elkartu ziren, eta lan bilera hartan alkateak adierazi zien udalak erabakitzeko museo etnologikoa izan dena eraikin horretan paratzeko inolako oztoporik ez zuela eta borondate osoa zuela horretarako. Hori dela eta, Kultura eta Turismo Departamentua Lizarrako Udalaren erantzunaren zain dago orain.

Bi administrazioen arteko akordioa formalizatu ondoren, eta higiezinaren proiektua erredaktatu eta gauzatzearekin batera, proiektu museografikoa ere prestatuko da, eta haren bitartez zehaztuko haren erakusketa iraunkorreko moldeak eta edukia; horrek ez du kentzen museoak berak aldi baterako erakusketak edo/eta beste edozein jarduera antolatzea, zabalkundekoa nahiz kultur arlokoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 14an.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuak legionelaren agerpenari aurrea hartzeko egiten duenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako Gobernuak legionelaren agerpenari aurrea hartzeko egiten duenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak legionelaren agerpenari aurrea hartzeko egiten duenari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2001ean Nafarroan legionellaren prebentzioa eta kontrola egiteko plan bat egin zen; bertan, legionella ugaltzea eta zabaltzeko arriskua ekar dezake-

keten instalazioen ikuskapen plan bat ere ageri zen.

Eraikinetan egindako ikuskapenen helburua da egiaztatzea, gehienbat, egiturazko baldintzak, funtzionamendukoak, garbiketa eta desinfekzio planak eta erregistroen mantentzea, erregistro horiek badiren eta araudiarekin bat datozen. Ikuskaturiko eraikinean dauden eta legionella zabaltzeko arriskua izan dezaketen instalazio guztiak aztertzen dira (hozte sistemaren dorreak, lurruntze-kondentsadoreak, osasun erabilerarako ur beroaren sarea...).

Kontrol planaren barruan, 2002ko urtarrilaren 1etik 2005eko irailaren 30era arte 359 eraikinetan dauden eta legionella ugaltzea eta zabaltzeko arriskua duten instalazio guztiak ikuskatu dira, eta horretarako 560 ikuskapen bisita egin dira, zein bere banakako txostenarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 11n.

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Hezkuntza Departamentuak esparru familiarrean euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Hezkuntza Departamentuak esparru familiarrean euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako euskaldunek familia giroan euskara erabiltzea sustatzeko Hezkuntza Departamentuak egindakoari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Euskararen erabilera sustatzeko helburua duten programetan egindakoa honakoetan gauzatzen da: Nafarroako Gobernuak foru erkidegoko hainbat udal eta toki enterekin izenpeturiko akordioan jasotako kultur jarduerak eta sustapen kanpainak, euskararen inguruko kultur jardueretarako deialdi orokorra, Unibertsitateetako eta Hizkuntza

Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolaturiko kanpainak eta "Hegazkintzaren mendea"- "El Siglo de la Aviación", "Antzerkiaren nondik norakoak"- "El mundo del teatro", "El mar, principio de la vida-ltsasoa, biziaren jatorria" eta "El vascuence en Navarra: sus dialectos/Nafarroako euskalkiak" izeneko erakusketa ibiltari elebidunak, azkena gobernuak sortua.

Nabarmendu behar dira halaber euskaraz eta erdaraz kaleratzen diren argitalpenak, familiei

zuzenduak eta haientzat interes handikoak diren eskola gaiei buruzkoak.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Hezkuntza Departamentuak esparru sozial eta publikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Hezkuntza Departamentuak esparru sozial eta publikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten ari denari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko irailaren 26ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako euskaldunek arlo sozial eta publikoan euskara erabiltzea sustatzeko Hezkuntza Departamentuak egindakoari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Euskararen erabilera sustatzeko helburua duten programetan egindakoa honakoetan gauza-

tzen da: Nafarroako Gobernuak foru erkidegoko hainbat udal eta toki enterekin izenpeturiko akordioan jasotako kultur jarduerak eta sustapen kanpainak, euskararen inguruko kultur jardueretarako deialdi orokorra, Unibertsitateetako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolaturiko kanpainak eta "Hegazkintzaren mendea"- "El Siglo de la Aviación", "Antzerkiaren nondik norakoak"- "El mundo del teatro", "El mar, principio de la vida-ltsasoa, biziaren jatorria" eta "El vascuence en Navarra: sus dialectos/Nafarroako euskalkiak" izeneko erakusketa ibiltari elebidunak, azkena gobernuak sortua.

Nabarmendu behar da, halaber, hainbat motatako argitalpenak (liburuak, CDak, DVDak, afiak...) sustatu, egin eta argitaratzeko ahalegina.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

